

MEMORIAREN ZEHAZPENAK

a) Software mota: mahaigaineko aplikazioa eta/edo arkitektura banatua duen aplikazioa.

- Zehaztu egin behar da mota batekoa, bestekoa edo biak onartzen dituen.
- Nola banatzen da:
 - Artxibo informatiko telematikoaren bidez
 - Euskarri fisikoaren bidez
 - Bi aukera posible dira
- Non egiten da XML fitxategia sinatzeko prozesua?
 - Lanpostuan
 - Igorlearen zerbitzarian
 - Garatzailearen zerbitzarian (Hirugarren batek eginda)
- Nondik egiten da bidalketa?
 - Lanpostuan
 - Igorlearen zerbitzarian
 - Garatzailearen zerbitzarian (Hirugarren batek eginda)
- Zer ekintza egiten dira erantzuteko XMLekin?
- Rest zerbitzua erabilgarri ez balego, zer egingo da fitxategiekin? Nola bilduko dira bidalketa-ilaran? Bistaratu daitezke? Erabiltzaileari abisurik emango zaio “borondatez” bidaltzeko ekintza egin dezan edo bidalketa “automatikoki” egitera bultzatuko da zerbitzua berreskuratu ondoren?
- Softwareak aukera ematen al du TicketBAI betetzera behartuta ez dauden erabiltzaileek fakturak igortzeko? Erantzuna baiezkoa bada, nola funtzionatzen du egoera hori aktibatzeak eta desaktibatzeak?

b) TicketBAIko alta fitxategien kateatzeko prozesua.

- Urteko zenbaketa korrelatiboa hasteko modua, fakturazio-serieak onartzen dituen edo ez (zuzentzaileaz gain, eta Fakturazio betebeharren Arautegiaren 6.1.a) artikulua (18/2013 FD))
- Aurreko fakturako datuak hartzeko modua (*saila, zenbakia, data, Aurreko <SignatureValue>eremuko lehen 100 karaktereak*)

c) TicketBAIko alta eta baliogabetze fitxategiak sinatzeko prozesua; TicketBAI softwareak sinatze prozesurako erabil ditzakeen ziurtagiri elektroniko motak adierazi behar dira, bereziki.

- Sinaduran jaso behar diren datuak, besteak beste, nahitaezkoak:
 - *Sinaduraren data eta ordua (SigningTime)*
 - *Sinatzailearen ziurtagiria (SigningCertificatev2 edo SigningCertificatev)*
 - *Sinadura elektronikoa sortzeko prozesuaren oinarri den sinadura-politica (SignaturePolicyIdentifier)*
 - *OID edo URL lokalizazioa adierazi*
 - *Sinadura-zehaztapenen agiriaren HASH-a eta erabili den algoritmoa*
- Adierazi aukerako etiketarik duen SignedProperties eremuan, eta zeintzuk diren:
 - *Non sinatu den dokumentua*
 - *Sinatzailearen rola*
 - *Sinatzaileak sinatutako dokumentuaren ganean egiten duen ekintza (onartu, jaso, berri eman, ziurtatu ...)*
 - *Objektu batzuetan edo guztietan ezartzen den denbora-zigilua*
- Adierazi erabiltzen diren algoritmoak:
ETSI TS 119 312 V1.3.1 zehaztapenean onartzen diren RSA sisteman oinarritutako algoritmo guztiak erabil daitezke. Gutxieneko ezaugarriak:
 - *Gakoaren tamaina 1024tik gorakoa izan behar da.*
 - *SHA256 edo bertsio berriagoak.*
- Adierazi onartzen diren ziurtagiri elektronikoak:
 - *Gailuaren ziurtagiria*
 - *Pertsona fisikoaren edo erakundearen ordezkariaren ziurtagiria*
 - *Enpresaren zigilua*
 - *Autonomoaren ziurtagiria*



d) TicketBAI softwareak sortzen dituen faktura edo egiaztagiri motak; bereziki adierazi behar da softwareak zer sortzen duen:

- Faktura erraztuak eta/edo osoak.
- Fakturak paperean eta/edo elektronikoak.
- Softwareak faktura osoak sortzeko aukera ematen du, sinplifikatuen ordez?
- Softwareak eragiketaren hartzaileak igorritako fakturak sortzeko aukera ematen du?
- Softwareak aukera ematen al du TicketBAI fakturretan QR kodeak ez diren QR kodeak sartzeko?
- Softwareak aukera ematen du fakturak ez diren beste dokumentu batzuk sortzeko, hala nola albaranak, proformako fakturak, aurrefakturak edo bestelakoak? Dokumentu bakoitzaren pantaila-kaptura bat ematea, adibide gisa.
- Softwareak aukera ematen du fakturak ez diren beste dokumentu horietan QR TicketBAI Kodea ez diren QR kodeak sartzeko?
- Softwareak ba al du erabiltzaileak sartutako IFZak egiaztatzeko aukerarik?
- Softwareak aukera ematen al die atzerriko hartzaileei fakturak sortzeko? Baiezkoa bada, ba al du erabiltzaileak barneratutako NIF-IVAak egiaztatzeko aukerarik?

e) TicketBAI kodearen eta QR kodearen kokapena, foru agindu honen 7. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

- Adierazi zehatz mehatz non kokatzen diren bi kode hauek:
 - *Orientazio bertikalean, fakturaren edo frogagiriaren beheengo aldean jarriko dira. TicketBAI kodea lerro bakar nbatean sartuko da, eta azpian QR kodea.*
 - *Orientazio horizontalean, fakturaren edo frogagiriaren eskuinerendo aldean jarriko dira. TicketBAI kodea lerro bakar nbatean sartuko da, eta azpian QR kodea.*
 - *TicketBAI kodea ezin bada lerro bakarean sartu, elkarren segidako lerro bat baino gehiago onartuko dira. Lerro bakoitzaren azken karakterea, salbu eta azken lerroaren, “-“ bereizgailua (erdiko marratxoa) izango da.*

- *Ahal bada, faktura oso baten eta faktura erraztu baten pantailazo bat aurkeztu beharko da.*
- *Dimentzioak adierazi (gutxienez 30*30 mm eta gehienez 40*40 mm) eta QR kodearen 4 aldean inguruan zuri dagoen 6 mm-ko gutxieneko distantzia gordetzen da.*

f) Foru agindu honen 8. artikuluan adierazitako informazioa pantaila bakarrean aurrez aurre egiaztatzea ahalbidetzen duen softwarearen aukeraren identifikazioa.

- Adierazi zer ikusten den egiaztapen-pantailan *TicketBAI softwareak aurrez aurreko egiaztapenaren funtzionaltasuna izan beharko du, eta, horretaz baliatuz, informazio hau erakutsi beharko du fakturazio gailuaren pantaila bakarrean:*
 - a) *Gailutik erabilitako TicketBAI softwarea garatu duen **pertsonaren edo erakundearen identifikazio fiskaleko zenbakia eta izen-abizenak** edo sozietate izena.*
 - b) *Gailutik erabilitako **TicketBAI softwarearen izena.***
 - c) *Gailutik erabilitako **TicketBAI softwarearen bertsioa.***
Nahi izanez gero, aurreko informazio hori erakusten duen gailuaren serie zenbakia ere bistaratu daiteke.

- *Ahal bada, pantaila-argazki bat aurkeztu beharko da ikus daitekeen edukiarekin.*



g) TicketBAIko alta eta baliogabetze fitxategiak gordetzeko sistema.

➤ Zehaztu beharrekoak:

- Gordetzeko bidea
- Fitxategien nomenklatura
- Adierazi guztiak gordetzen diren (bai bidalitakoak, bai bidaltzeko daudenak)
- Adierazi biltegitratzeko gutxieneko eperik definituta duen ala ez, adibidez: 5 urte oso gehi uneko ekitaldia (preskripzio-epea) edo epe hori konfiguratu daitezkeen.